

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h** duzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 500 hitz gehienez. 	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	30 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

GORKA ZUBELDIA

Mont Blancen inguruan bi lasterketa nagusi egiten dira aldi berean: ultratraila, 171 kilometrokoa, eta CCC izenekoa, 101ekoa.

Azken hori bukatzeko, bederatzi kilometroko jaitsiera falta zitzaion Gorka Zubeldiari (Alegia, 1970). Antolakuntzakoak walkie-talkiez hitz egiten ari ziren, denboraz kanpo baitzihoan. Baina hankari begiratuta, jarraitzen utzi zioten. Lasai zihoan. Mont Blanceko ultratrail lasterketako lehen korrikalariak iristear zeudenez, 3.000 ikusle zeuden helmugan. Ezustekoa izan zen guztiak *courage* [kemen] alegiarrari errepikatzen entzutea. Helmuga zeharkatutakoan, bertan eseri zen, eta protesia kenduta, harrera eskertu nahi izan zien ikusleei, argazkilariei bizkarra emanda.

2003an istripua izan zuen Zubeldiak, eta eskuin hankaren zati handia galdu zuen. Metalean zebilen lanean orduan, eta istripua dela eta, urtebete egon zen lanik egin gabe. Muinoia ondo sendatu arte ez zuen jarri lehenengo protesia. Lan egin nahian, bila hasi eta Katea Legaian aurkitu zuen, Tolosan. Beste guztiek bezala lan egin zezakeela jabetuta, ikusi zuen kirola egiteko gai ere bazela.

Gizarte Segurantzaren bidez lortu zuen lehenengo protesia, baina korrika egiteko protesiek kolpeak leuntzeko sistema izan behar dute, aldapan behera ez sufritzeko, eta horiek Gizarte Segurantzatik kanpo gelditzen dira. Hori dela eta, Zubeldiak berak erositako protesi egokiagoa erabili du azken bi urteotako lasterketetan. Izan ere, protesi gogorarekin egin zuen lehen mendi lasterketa muinoia odoletan amaitu zuen.

Mont Blancekoaren ondoren, zorion mezuak jaso ditu, eta Txinako lasterketa batera ere gonbidatu dute. Zegama-Aizkorri mendi maratoia da, ordea, begiz joa duena. Ez dauka lan erraza, ordea, 5.000 lasterkari inguruk ematen baitute izena eta hirurehun dortsal baino ez baitituzte zozketatzen.

Beste proiektu bat ere badauka: lasterketa solidarioetan parte hartzea. Gainera, urritasunen bat dutenak kontuan hartuz, haientzat txapel edo oroigarriren bat egotea nahi luke. Aurrerago joanda, horrelakoentzako probak sortzea du helburua.

LUKI M.

Gipuzkoako Hitza, 2019ko urria. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer dio testuak Gorkak Mont Blancen egindako lasterketaz?

- a) Denbora muga igaro gabe zuenez, lasai bukatu zuela lasterketa.
- b) Epaileek hankari erreparatu gabe, jarraitzen utzi ziotela.
- c) Ultratraileko lasterketariak baino lehentxeago iritsi zela helmugara.

2. Zer gertatu zen helmugan?

- a) 3.000 lagun Gorkaren beraren zain zeudela.
- b) Eseri egin zela, esker moduan, jendearen harreragatik.
- c) Protesia kendu zuela, jendeari kemena eskertzeko.

3. Zer dakigu Gorkaren lanaren inguruan?

- a) Protesia jarri arte ez zela lanean hasi.
- b) Enpresa-kate berean hasi zela lanean, istriputik urtebetera.
- c) Lanean hasteko garrantzitsua izan zela kirola.

4. Zer dio testuak protesiei buruz?

- a) Gizarte Segurantzak eskuratu dizkiola korrika zein mendi-martxak egiteko protesiak.
- b) Mendian korrika ondo egiteko protesiak ez dituela Gizarte Segurantzak ordaintzen.
- c) Korrika gustura eta eroso egiteko, protesiatatik leunago joan behar dela.

5. Zer dio Zubeldiak kirola egiten jarraitzeaz?

- a) Txinako lasterketa batean parte hartuko duela, gonbidatuta.
- b) Zegama-Aizkorri maratoian dortsala lortuko duela, ia ziur.
- c) Korrika egiteko asmoa baduela.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A IRUN

Udalak aurrekontuetako 1.500.000 euro jarri ditu herritarren eskura, aurreko urteetan bezala, erabakitzeke non eta nola gastatu. Prozesua bi eremuotan egituratuta dago: a) orokorra, 16 urtetik aurrerakoentzat, 1.300.000 € banatzeko. b) 16-30 urte arteko gazteentzat, 200.000 €.

Orokorrean, bi modu egongo dira parte hartzeko: online eta aurrez aurreko 2 bilera. Guztira, 20 proposamen izango dira amaierako botazioan aukeratzeko.

Gazteentzako prozesu partizipatiboan ere 20 proposamen eramango dira azkeneko bozketara; 10 webgunetik jasoko dira, eta gainontzeko hamarrak gazteen parte-hartze dinamiketarik.

Azkenik, 40 proposamenetatik 20 hautatuko dira.

[<Irun.org>](http://Irun.org) Egokitua

B AMURRIO

Dinamika parte-hartzailearen lehenengo fasean, herritarrek egindako 315 proposamen bildu ziren. Denak bateratuta, 218 pasa ziren bigarren fasera. Bozketan-fasera, berriz, 30 heldu dira: hamabost 5.000 eurotik beherakoak dira; eta beste hamabostak, gorakoak.

Aurrekontu baxuagokoek zein 5.000 eurotik gorakoek azterketa ekonomikoak eta bilera irekiak pasatu behar izan dituzte, onartuak izateko.

Proposamen finalisten bozketan, 16 urtetik gorako amurriotar orok du bozka-eskubidea. Botoa baliagarria izateko, herritar bakoitzak 5.000 eurotik gorako hiru proposamen eta beherako beste hiru bozkatu beharko ditu derrigorrez.

Bozkatzeko fitxak Amurrioko etxe guztietara bidaliko ditu Udalak.

[<amurrioekin.eus>](http://amurrioekin.eus) Egokitua

C GALDAKAO

Herritarrek udal politikak diseinatu eta erabakitzeke, Udalak aurrekontuko 1.000.000 euro gorde du proposamen-hautaketarako.

16 urtetik gorako galdakarak nahi beste proposamen aurkez ditzakete Udalaren web-orrian. Herritarrek proposamenen artean gehienez 10 aukeratu ahalko dituzte. Norbaitek behin baino gehiagotan bozkatzen badu, kontabilizatutako lehenengo botoak balioko du.

Proposamen bozkatuenak txertatuko dira aurrekontuetan 1.000.000 euroak gastatu arte. Udalaren web-orrian zein tokiko komunikabideetan argitaratuko dira proposamen horiek.

Bukaeran, memoria egingo da prozesuaren emaitzekin, eta gobernu-taldeak azken emaitza ebaluatuko du.

[<Galdakao.eus>](http://Galdakao.eus) Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

6.	Botoa behin baino gehiagotan emanaz gero, lehendabizi emandakoa hartuko da kontuan.
7.	Prozesua hasia dute, hainbat etapa eginda dituzte eta.
8.	Prozesuaren bukaeran dena aztertuko da.
9.	Bozketan bi multzo nagusi daude, diru kopuru zehatz bat oinarri hartuta.
10.	Zein proiekturi lagundu erabakitzeko prozesua adinaren arabera egin da.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopia**tu.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko**.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.

Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Aurreko astean, lineako erosketa bat egin zenuen etxetik; eta, atzo, eskatutakoa heldu zitzaizunean, harrituta eta haserre geratu zinen.

Idatzi email bat denda horren Berezoentzako Arreta Zerbitzura, honako hauek kontuan hartuta:

- Zer gertatu zaizun: zer erosi zenuen, produktuaren zehaztasunak, zein izan den arazoa.
- Zenbat aldiz erosi duzun denda horretan.
- Adierazi zein izan daitekeen konponbidea.
- Adierazi ea berriro erosiko zenukeen denda horretan eta zergatik.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «GORKA ZUBELDIA»

1.	C	2.	B	3.	A	4.	B	5.	C
----	---	----	---	----	---	----	---	----	---

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK»

6.	C	7.	B	8.	C	9.	B	10.	A
----	---	----	---	----	---	----	---	-----	---